

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Dani Maeztu Perez Aralar taldeko legebiltzarkideak**, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatuz, ondoko **legez besteko proposamena** aurkezten du, **telefonía mugikorreko azpiegiturak ezartzeko legeri** buruz, **osoko bilkuran** eztabaidatzeko:

### **ZIOA:**

Telekomunikazio-sistemek erabiltzen duten komunikazio-sare eta -azpiegiturak gero eta gehiago dira. Ugaritze horrek ekarri du udalerrietan telefonía mugikorreko antenak ugaltzea. Horrek gizartearengan ezinegona sortu du, batik bat, ugaritze horrek dakarren isuri elektromagnetikoak osasunean eta ingurumenean eragin ditzakeen kalteak direla eta. Bestalde, kontuan hartu behar da instalazio horiek begi-bistako disfuntzioak eragin dituztela hiriguneetan eta ingurumenean.

Hainbat ikerketa egin dira antenak sortzen dituzten eremu elektromagnetikoei (aurrerantzean, EEM) osasunean dituzten eragina zein den jakiteko. Ikerketa batzuen arabera, erradiazio ez-ionizatzaileak ez dira kaltegarriak osasunarentzako. Beste askok, ordea, guztiz kontrakoa diote, eragin kaltegarri esanguratsuak sortzen dituztela, alegia. Desadostasunak desadostasun, ikerketek argi utzi dutena da EEMek eragin biologikoak sorrarazten dituztela.

Gai horren harira, gaur egun eztabaida zientifiko eta politikoa zein egoeratan dagoen kokatzeko lagungarria izan daiteke Europako Parlamentuak onartutako ebazpena (2009-04-02 datan onartuta). Eremu elektromagnetikoen osasun aurre-gogoetei buruz hausnarketa egiten du eta hainbat gomendio eta eskaera jasotzen ditu.

Txosten hori irakurrita, aski argi geratzen da gaur egun gai horren inguruan kaltegarritasunaren harira datozen zalantzak gaindituta daudela eta, arreta printzipioari helduta, beharrezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoan gai horren inguruan marko arautzailea ezartzea.

Araudi hori lege-testuinguru egokian kokatzeko asmoz, gogoratu behar da Europako Batasuneko Osasun Ministroen Kontseiluak uztailaren 12ko 1999/591/EE Gomendia onetsi zuela. Gomendio hau eremu elektromagnetikoei jendearengan duten eraginari buruzkoa da (0 Hz-etik 300 GHzetara).

Estatuan 1.066/2001 Errege Dekretua onetsi zen gomendio hori garatzeko. Erregelamendu horretan ezartzen ziren, besteak beste, jabari publikoko irrati-uhinetatik babesteko baldintzak, irrati-uhin igorpenei murrizketak eta, oro har, irrati-uhinen igorpenaren aurrean osasuna babesteko neurriak. Beraz, errege dekretuak 1999/519/EE Gomendioak ezartzen dituen irizpideak bere egiten zituen. Baina gai horren inguruan jakite zientifiko berriak agertu dira eta aipatutako legedian jasotzen ziren neurriak zaharkituta geratu dira. Horren adierazle garbiena, Europako Parlamentuak, joan zen urteko irailean (08/09/04) egindako ebazpena dugu. Hark beren beregi jasotzen du: “pertsonentzako eremu elektromagnetikoen esposizio hedadura zaharkituta dago, 1999/519/CEk 1999an uztailaren 12an egindako gomendioak ez duelako aldaketarik izan (...) logikoki, ez du informazio-teknologiaren eta komunikazio-teknologiaren garapena kontuan hartzen, ezta Europako Ingurumen Agentziaren gomendiorik jasotzen eta, ezta ere Belgikan, Italian edo Austrian gai horren inguruan ezarri diren arau zorrotzak jasotzen; hala, aipatu ebazpenak ez ditu giza talde zaurgarrienak kontuan hartzen, haurdun dauden emakumeak, jaioberriak eta umeak, alegia.

Hasieran aipatutako Europako Parlamentuaren ebazpenak (2009-04-02) egindako egokitzapen zientifikoari amaiera eman dio.

Gurera etorrita, EAEn, gai horren inguruan hutsune arautzaile bat dago. Ez daukagu gai hori arautzen duen lege jakirik. 3/1998 ingurumena babesteko Legearen garapenerako testuetan bakarrik aipatzen dira azpiegituren kokapenen inguruko zehaztasunak. Gainera, guztiz zaharkituta geratu diren irizpideak jasotzen ditu. Era horretan, gaur egun tankera horretako azpiegiturak lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jarduerak bezalaxe aurreikusita daude, industriarako hiri-lurzoruetan edo lurzoru ez-urbanizagarrietan, adibidez.

Horregatik, kontuan hartuta Autonomia Estatutuaren arabera Euskal Autonomi Erkidegoak dituen eskumenak, 10.31 artikulua, Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du, lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan. Gainera, Autonomia Estatutuaren 11.1.a artikuluari helduta, Autonomia Erkidegoak eskumena du Estatuaren oinarritzko legeria garatu eta betearazteko ingurumenaren eta ekologiaren arloan. Bestalde, 18.1 artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du Estatuaren oinarritzko legeria garatu eta betearazteko, osasunaren arloan.

Horren guztiaren aurrean, Aralar legebiltzar-taldeak hurrengo legez besteko proposamena aurkeztu du:

## LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Sei hilabeteko epean, Legebiltzarrean proposatzea, isuri elektromagnetikoak sortzen dituzten azpiegituren lege-proposamena.
2. Lege horrek irizpide nagusizat, besteak beste, honako hauek izango ditu:
  - Pertsonak pairatu behar duten esposizio-baloreak ezartzea, 1066/2001 Errege Dekretuak ezartzen duenaren azpitik, alterazio zelularrak edo biologikoak saihesteko.
  - Enpresek gainditu beharko dituzten ikerketak egiteko obligazioa ezartzea eta telekomunikazio-azpiegiturak ezartzeko gunerik aproposenak zeintzuk diren arautzea.
  - Herrietako eta landa-eremuetako ikus-eremuari eta ingurumenari ahalik eta kalte gutxien eragingo dioten neurriak ezartzea.
  - Udalek egin beharko duten isuri elektromagnetikoak agertzen dituzten irratihinen mapak ezartzea.
  - Babes berezia eskaintzea ospitale, eskola, adinekoen egoitza eta antzeko eraikinen kasuan.
  - Eskuko telefonoen neurritz gaineko erabileraren aurkako kanpainak ezartzea. Eskuko telefonoen umeek egiten duten erabilera mugatzea eta eurei zuzendutako publizitatea galaraztea.
3. Lege hau indarrean sartu arte, luzamendua ezartzea aipatutako azpiegituren kokapenak onartzerako orduan.

**Gasteizen, 2009ko uztailaren 7an**

**Dani Maeztu Perez**

**Aralar taldeko legebiltzarkidea**